



PRENTSARAKO OHARRA

18/11/28

Kolonbiako ordezkariak bere miresmena erakutsi dau Bizkaiaren historiaren eta errealidade demokratikoaren aurrean

Guido Echeverri Caldaseko Gobernadorea buru izan dan eta hainbat arlotan, erakundeetan, enpresan, unibersidadean eta komunikabideetan, adibidez, erantzukizuneko karguak dituen figura garrantzitsuek osatu daberen Kolonbiako ordezkariak Gernikako Batzarretxea bisitatu dau gaur arratsaldean.

Bertan, Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidenteak, “Pakean, ezertarako balio ez dauen indarkeria odoltsu barik bizi dan Euskadira” ondo etorria emon deutse.

Guido Echeverrik Bizkaiko Batzarretxeak daukan “karga historikoa” autortu dau, eta pozik agertu da “errealidade garrantzitsua” ezagutzeagaitik. Caldaseko Gobernadoreak balioan jarri dau bisita hori, ikuspuntu “pertsonaletik eta intelektualetik nahiko pizgarria” dala esanez, eta, horrez gain, “Kolonbiaren eta Euskal Herriaren artean merkataritza, irakaskuntza eta kultura arloko “askoz be hartu-emon indartsuagoak ezarteko” aukerea emongo dauela azpimarratuz.

Bisitea, Eusko Jaurlaritzak bultzatzen dauen “Euskadi Learning Tour 2018” programaren laugarren edizinoaren barruan dago. Ekimen horren helburua, Euskadiko alderdi azpimarragarrienak eta berezienak kanpoko pertsonalitateei erakustea da.

Bizkaiko Lurralde Historikotik egin dauen ibilpidearen barruan, ordezkariak Bizkaiko Batzar Nagusien egoitza tradizionalera heldu da, Gernikako Arbola enblematikoak atsedean hartzen dauen lekura. Antzeko kimua ari da hazten Quinta de Bolivar izeneko lekuan, Candelarian, “Pakerako eta Askatasunerako doguzan asmoen sinbolo moduan”.

Osokoen Aretotik, Batzarretako Presidenteak esker oneko berbak izan ditu “Kolonbiak gure euskal arbasoei eskeini eutsien harrerarengaitik”. 1936ko gerraren ostean, euskaldun garrantzitsuak hartu ebazan herrialdeak, Patxi Abrisketa bibliofiloa eta Eusko Jaurlaritzaren ordezkaria edo Jorge Oteiza eskulturagilea, beste batzuen artean.

Harrera hori dala eta, Batzar Nagusien Administrazio egoitzaren buru, Oteizak berrogeiko hamarkadan Bogotako Palermo auzoan, Euskal Etxearen ondoan, dagon Gernika Plazarako egin eban “Gernika” brontzezko eskultorea dago. Gaur egun, plaza horren buru Picassoren “Guernica” koadroaren erreproduktzio bat dago.

Kolonbiako ordezkariaren buru Guido Echeverri Piedrahita Caldaseko Gobernadorea izan da, eta beragaz batera honeek etorri dira: Jorge Eduardo Londoño Ulloa Errepublikako senadorea, Enrique Cabrales Baquero Kamerako ordezkaria Bogotatik, Erasmo Elías Zuleta Kamerako ordezkaria Cordobatik, Jorge Humberto Pelaez Piedrahita Pontificia Universidad Javeriana izenekoaren Erretorea, Bruce Mac Master Rojas Asociación Nacional de Empresarios de Colombia izenekoaren presidentea, Ricardo Ávila Diario de Economía Portafolio izenekoaren zuzendaria, Erika Fontalvo Hoy por

Hoy (Radio Caracol) eta Opina Bogota (Canal Capital) saioetako kazetaria eta Rafa Kutz Euskadiko ordezkaria Txilen, Perun eta Kolonbian.

NOTA DE PRENSA

28/11/18

Delegación de Colombia muestra su admiración por la historia y la realidad democrática de Bizkaia

Una delegación de Colombia encabezada por el Gobernador de Caldas, Guido Echeverri, y formada por relevantes figuras que ocupan puestos de responsabilidad en una variedad de ámbitos, entre ellos el institucional, empresarial, universitario y medios de comunicación, ha visitado esta tarde la Casa de Juntas de Gernika.

Allí ha sido recibida por la Presidenta de las Juntas Generales quien ha dado la bienvenida a los y las invitadas a “una Euskadi en paz, sin estériles y sangrientas violencias”.

Guido Echeverri ha reconocido la “carga histórica” que emana la sede del Parlamento de Bizkaia y se ha mostrado satisfecho de conocer una “realidad importante”. El Gobernador de Caldas ha puesto en valor esta visita calificándola como “bastante estimulante” desde el punto de vista “personal e intelectual”, y que a la vez, permitirá “establecer una relaciones mucho más sólidas” en lo comercial, académico y cultural entre Colombia y País Vasco.

Esta visita se produce en el marco de la cuarta edición del programa “Euskadi Learning Tour 2018” que impulsa el Gobierno Vasco con el objetivo de dar a conocer lo más destacado y singular de Euskadi a altas personalidades del exterior.

Como parte de este recorrido por el Territorio Histórico de Bizkaia, la comitiva ha recalado en sede tradicional de las Juntas Generales de Bizkaia, lugar en el que descansa el emblemático Árbol de Gernika. Un retoño similar crece en la Quinta de Bolívar, en la Candelaria, “como símbolo de nuestros deseos de Paz y Libertad”

Desde el Salón de Plenos, la Presidenta de las Juntas ha tenido palabras de agradecimiento “por la acogida que Colombia realizó a nuestros antepasados vascos”. Un país que, tras la Guerra del 36, acogió a ilustres vascos, como el bibliófilo y Delegado del Gobierno Vasco, Patxi Abrisketa, o el escultor vasco Jorge Oteiza.

Fruto de esta acogida, la sede Administrativa de las Juntas Generales se encuentra presidida por el bronce “Gernika” que Oteiza realizó en los años cuarenta para la Plaza Gernika de Bogotá en el barrio de Palermo, junto al Centro Vasco, plaza hoy presidida por una reproducción del “Guernica” de Picasso.

La comitiva colombiana ha estado encabezada por Guido Echeverri Piedrahita, Gobernador de Caldas, al que también le han acompañado Jorge Eduardo Londoño Ulloa, Senador de la República; Enrique Cabrales Baquero, Representante a la Cámara por Bogotá; Erasmo Elías Zuleta, Representante a la Cámara por Córdoba; Jorge Humberto Pelaez Piedrahita, Rector de la Pontificia Universidad Javeriana; Bruce Mac Master Rojas, Presidente de la Asociación Nacional de Empresarios de Colombia; Ricardo Ávila, Director del Diario de Economía Portafolio; Erika Fontalvo, periodista Hoy por Hoy (Radio Caracol) y Opina Bogota (Canal Capital) y Rafa Kutz, Delegado de Euskadi en Chile, Perú y Colombia.

